

Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak (6 – Ezkaroze)

KOLDO ARTOLA*

I zenburu orokor bera duten entrega hauetako lehenengoan zertu genuen bideari jarraipena emanez, oraingo honetan Ezkarozentz bildu ditugun datuak hona ekartzea dagokigu.

Adibideok ematen hasi aurretik gure informatzaileei buruzko zenbait ezaugarri eman nahi genuke eta baita haiak berek hala tratamenduari buruz eta euskararen egoerari buruz nola ibarretik kanpoko beste zenbait mintza-moldeez zuten hainbat iritzi agertu ere. Gregoria anderearekin behin baino gehiagotan izan ginen, egin ere *EAEL*-erako inkesta bat egin baikenion, argitaratzera iritsi ez bazeen ere¹.

Gregoria Mikeleiz Esarte (GM), *Eseberri* etxekoa. 1902an sortua, ama ezkaroztarra izan zuen eta aita otsagiarrar. 1976-80 bitarteko denboran bildua.

Sinforiana Narbaiz Eseberri (SN), *Txalezker Alto* etxekoa. 1899an sortua, ama ezkaroztarra izan zuen eta aita eaurtarra. 1976an bildua.

TRATAMENDUAK DIRELA ETA

Gregoria eta Sinforiana andere umoretsuek, beren arteko harremanetan, hikako tratamendua erabiltzen zuten –nokako erak erabiltzen zitzuzten bezalako bisitariren bati, gehienetan, xukakoa, batzuetan zukakoa eta

* Donostiako ARANZADI Zientzia Elkarteko Etnografia Mintegikoa.

Eskerrak eman nahi dizkiot, arazo gehienbat gramatikalak direla-eta, laguntza eman didan Xabier Semeari, Euskal Filologian lizentziatua.

Trinidad Hualde jaun ezkaroztarra eskertu nahi dugu orobat, 2003ko udazkenean azaldu diogun zenbait zaldantza argitzen lagundu digulako.

¹ Lakin txiki bat, baina, argitaratu zen (*Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa, II*, 271 zk.ko etnotes-tua), Espartzan bildu genuen lan osoaz gainera.

zenbaitetan ‘dukakoa’ ere, hots, gaztelerazko ‘de usted’ –singularreko 3. pertsona– egiten baziguten ere. Horretaz landara, zenbait aldiz tratamendu bat beste batekin edo bat baino gehiagorekin nahasten zuten, are hikako bi tratamenduak beharrik gabe nahasteraino ere, jarraiko bi adibideetan ikus dai-tekeenez:

GM: (zukako adibide arruntak) Txopáre kori, ikusi dü’zu? / Zúk aitzür-tzen... zuá?

SN: (id. id.) Kéndik góra, zubía, ikusi zu / Zér dakigú? akáso, suértia ere egín dokezú

SN: Bai, ník zúriak (hitzak, alegia) eta zúk éniak, por ejemplo eré... entén-ditzen txút... oh! zér nái duen erran, élerran

(esaldi honetan Sinfioriana anderea zuketan abiatu zen, xuketan jarraitu eta, az-kenik, ‘dukek’eko tratamendua eman zigun –hots, gaztelerazko ‘de usted’–, sin-gularreko 3. pertsonakoa)

GM: (senarrari, era desegokian) Erágui... zán... katórda² bat; katródara erà-gui zán!

(aldi honetan Gregoriak bere senarrari nokako tratamendua eman zion, Sinfioriana adiskidearekin denbora guztian era horretan mintzatu ondoren senarraren le-henengo agerraldian tratamendua aldatu beharraren premiaz ohartu gabe, antza. Zernahi gisaz, denboraren joanean tratamenduen arteko nahasmenak aditzeko aukera izan dugu: Uztarrozeko Fidela Bernat zenak, hiketan mintzatzean, nokako tratamendua erabili ohi zuen tokakoa ikasi ez zuelako, eta Zuberoako Mus-kildi herrian, bortuaren beste aldean, ezagutu dugu arrebarik izan ez eta, umetan anaien artean ikasi tokako tratamendu horixe, gero, ezkontzean, emaztearekin erabiltzen jarraitu duen gizonik. Edozein kasutan ere tratu-nahasmen hauetan markarik handiena Biarnoko Jeruntze herriko *Barraqué* laborantza-etxearen –elizaz Eskiulakoa bada ere– aditu dugu, aitonari ez ezik amonari ere toketan egin izan dion andre bat ezagutu dugunean, handik hurbil kokatu Barkoxe herriaren inguru-ruan semealabek gurasoei hiketan egitea oso hedaturiko ohitura baldin bada ere)

GM: (senarrari, oraingoan era egokian) Éz-ez-ez-ez-ez... ez dük igual!

EUSKARAREN EGOERA DELA ETA

SN: Gúk ezpádakigu yá, úskarara eré; kainbát úrte eztúgula bátre prakti-kátzen pues, fáten dá... pues... átzez!

GM: Nik, ník erran ninan: nórí? Eufémiak³ xárdokitzén din, más o me-nos... zómat?

SN: Zér Eufémiak? Frailénak? eeéztin xárdokitzén ya éz.

GM: Ez? ez? gútti?

SN: Gút(t)i.

GM: Zómait aldíz, dotórean ta kála, xúntatzen ník bai...

SN: Bai! pues... gutí ere. Ni... egóten nún ardúra⁴ onekín ta jam-más us-kárara; ník uskára ta arék erdáraz.

GM: Míra...!

SN: Bai, bai...; familiará...

² Hitz mailegatua dugu hor, gazi. ‘cátedra’ berez, Zaraitzun-eta ‘silla’ edo antzeko esanahiaz era-biltzen bada ere.

³ Andre hori *Juaniki* etxeko Eufemia Belza izan zitekeela uste du Gregoriaren seme Segundo Die-zek baina *Fraile* izeneko etxerik Ezkarozentz ez dagoela dio; izengoitiren bat izango ote zen?

⁴ *ardura* hori, hor, ‘kezka’ ote den pentsa daiteke agian.

GM: Gèro Sabínok⁵ eré zerbáit, xárdokitzen dín baëa...

Beste une batean:

SN: ¡Ay, qué negoc...! ¿no ve? cómo... enseguida vamos al castellano. ¡Naa! ya no quiere hablar nadie; ni los pocos que quedan, no quieren practicarlo aquí. Y ahora sabemos, que estudian, a todo meter...
- erran beza uskaraz, kori...

GM: (Sinforianari:) Ah, xardóki zánalá kóri uskáraz.

SN: Akáitzén niz! ¡oye! que... que me es casi difícil hablar ya, que sí, que sí, el vasco; ¿no ve que... eztúgu pràktikàtzen bátre! bátre!
- (txantxetan:) xin bearko dut kemendik altzina maizago, ziekin egoteko, zirikatzeko eta...

SN: Ziríkatzékotán?

- egunoro xardokiarazteko; kemen baraturen niz bizitzen eta egunoro-egunoro, tras! akulluarekin...

SN: Bai! akúlluarekín ta itzé bat, sartrík, púntan, e? uskaldunian, idíak, ié! ié! eé! ié! eta kárröa béti gélid! (barrez lehertzen). Pues... en fin, difízilxka ikústen dut nik kóri; en fin...

- asten balin badira, e? Otsagin eta Eaurtan asi dira eta, bein asiz geroz ikasiren die emaro-emaro...

SN: ¡En fin! en fin, zér dakigú? akáso, suértia ere egín dokezú.

- eta Espartzan zendako iraun du uskarak kemen beño geyago?

SN: Pues... kóri, erríko jéndearén... alízientea; klaró! bòrondátea!

- yago segitu die kemen beño...

GM: Xegítu yágó...

SN: Bai, bai, bai... kemen señóritoagò.

GM: Éaurtan eré, berántago xegitzén; (Sinforianari:) e'izá oritzén, mutílek eta neskákek eta... guziék uskáraraz (sic)... nolá xardòkitzen zien?

SN: Bai.

GM: Kén gük gótti! ¡hala! mutílak eta nexkátöak eta... musikán? gótti xardòkitzen gininán uskáraz, e? gótti!

- (Gregoriari): ez dakit atzo erran nakonez orri Otsagin egin diela lista bat egungo uskaldunekin, uskaraz xardòkitzen dakienetan izenekin, eta elki direla laurogei pertsona. Eta Eaurtan berrogeita amasei...

GM: (Sinforianari begira) Pues ník errán nakonán: kebén? dozn'erdi bát? xárdokitzen diéla zérbait, e? zérbait! gótti!

- dozena erdi bat solo?

GM: Aah! bái-bai... ník erran náuzu (sic): dozn'erdi bát?

SN: ¡A lo mucho decir...!

BESTELAKO MINTZAMOLDE BATZUK DIRELA ETA

SN: Bakótxak bère probinzián, distínto... éle áníz ta áñitz distínto ¡ya lo creo...!

- bai, baia entendatzen dugu aski ongi

⁵ Sabino Narbaiz, Sinforiana anderearen anaia, hain zuzen ere.

- SN: Bai, ník zúriak eta zúk éniak, por ejemplo eré... enténditzen txút... oh! zér nái duen erran, élerran.
 - (*beste uneren batean*)
- GM: Ah! Rongárin éz, ník ez bétut áitu sékula uskára, mirál!
- SN: Nik ére ez.
- GM: Errán nazkón⁶ átzo, enuélá aitú sékula Errongáriko... [uskarara]
- SN: Déna anítz... distinto kontárik; errán dugu: kéndik Ótsagirá ere bái.
- GM: Pues ník eztút áitu sékula ere.
 - *baia badu... antza andi; 'antza' erraten dea kemen, 'parecido' errateko?*
- GM: (ingurukoei) 'Es parecido', en vasco, ¿cómo se dice?
 - *idurikoa?*
- GM: Idúriko bat, bai, idúriko bat: 'parecido'.
 - *pues kori: Errongariko uskarara eta kemengoa dira elkar idurikoa...*
- SN: Alkár idúrikoak, bai, bai. (Gregoriaren senarraz:) Pues, aquí sabe el vasco; pero ya no es tampoco como el nuestro, es de ahí, del valle de Aézkoa...
- GM-ren senarra⁷: Es diferente del mío.
- SN: Pues diferente, ¡claro!
- GM-ren senarrak: El mío y lo que... lo de los vascos de por ahí, es igual.
- GM: No, no...
- GM-ren senarrak: ¡Mira a tu hijo! o a tu hermano⁸...
- GM: Éz-ez-ez-ez... ez dük igual!
 - *baia kemengo uskarara da onik eta Errongarikoa ere anitz eder; orai il-tzen dago, ez dira baratzen baizik ere xar batzuk...*
- SN: Ya, ya... kláro! álde guzietán ya... zárrrok, ílez faten grá eta... úskarará eré íltzen da.

ADIZKIAK BARNEHARTURIKO ESALDI-ZERRENDA

Lan hauetako ziorik nagusiena ditugun materialetatik ateratako esaldiak es-kaintzea izaki, jarraiko lerroetan, hala grabatu zintetatik harturiko esaldiak –ia guztiak halakoak dira– nola Gregoria andereari, 1980 urtean, *EAEL*-erako eskuz egin genion inkestatik aukeraturiko esaldi urri batzuk ekarriko ditugu hona.

Horretarako, eta honen aurreko lanetan –Eaurtako hizkerari eskaini genizkion hiru saioetan, alegia– egin genuen moduan, oraingo honetan ere agertuko diren adibideei zenbaki bana eman zaie, aipatu saiootan emanikoa bera, hain juxtua, era honetan Ezkarozeko mintzaerari eskaini adibide hauek haietan ageri zirenekin erkatu ahal izan daitezen.

Ondoren agertuko diren laginak idazten hasi aurretik, baina, ohar bat egitea komenigarria iruditu zaigu: zenbait esalditan hitzen baten gabezia nabiari dugunean, halakoa, esaldia osatzearen alde, letra garaia erabiliz eta kortxete artean sartu dugu –orain arteko saioetan, horretarako, letra etzana erabili badugu ere–, honela hobeki geratzen delakoan.

⁶ Bitxi da ‘nazkon’ hori hor, ‘nakon’ aski baitzen.

⁷ Juan Díez, Aezkoako Hiriberriko semea.

⁸ Aipatu semea Leitzan zegoen orduan, lan egiten, eta Donostiarra ezkonduriko anaia Jose Marik, berriz, guk ezagutu genuenean, ia Donostialdeko euskara zerabilen jada, zaritzuar kutsu bat antzematen bazitzaion ere. Gregoriaren senarrak, dena den –haren baieztapenei men eginez, bederen, eta bixti bada ere–, berdin xamartzat jotzen zituen Aezkoako, Leitzako eta Donostialdeko mintzamoldeak.

Beste zenbaitetan, aldiz, parentesi karratu horien artean idatzi duguna, dela gauza bat edo besteagatik dela zaraitzueratik kanpoko hitza izateagatik, orduan bai, letra etzanean idatzi dugu, hurrengo saioetan ere oraingo erabaki honi eutsiko diogula.

- 1) Aditz laguntzaile iragangaitza (*nor* kasua)
 1-01 → 1-19, orainaldia; 1-20 → 1-38, iraganaldia.

<u>adizki-zk.</u>	<u>adibideak</u>
1-01	<p>GM: ogeitabí urtez egón níz... xáizten bei (gazt. ‘ordeñar’erako <i>xáiz</i> eman zuen Gregoriak eta <i>xántz</i> Sinforianak)</p> <p>SN: fíjatzen niz mittika bát eta...</p> <p>GM: bfar eniz élkiren étserik (EAEL-I, 252, arg. gabea)</p>
1-03	<p>GM: ní oròitzen nún</p> <p>SN: ni... egóten nún ardúra onekín</p> <p>GM: énum egon! etxáz eta ez áusten ere! ('ez xaz eta ez aurten' dugu hor; hots, lehenengo kasuan sandhia dugu eta bigarrenean errotazismoaren ondorio garbia)</p>
1-05 b	<p>SN: fíja adí! pues ní enún orítzen!</p> <p>SN: pero, yá que zu izán baixa kàin sincéra (halakoxe nahasmena ikusten da esaldi honetan: <i>zu baina xa</i>)</p>
1-06	<p>GM: oztu iz? (eskuz hartuta; azentua, baina, ez genuen markatu)</p> <p>GM: e’izá oritzén, mutílek eta neskákek eta...? (hots, bi adibide hauetan, galderak egitean adizkiari eransten ohi zaion -a galdeztailea behin bai eta beste behin ez zuen erabili Gregoriak)</p>
1-07	<p>GM: káu dá... ikúzi gabé ta béltx eré... esértzeko (ikuzi hori –gazt. ‘lavar’– <i>ekuzi</i> aditu genuen duela 25-30 urte inguru Uztarrozen eta Izaban)</p> <p>SN: pues... dénbrará, órai artió, gáxto, betí euríari (...); bai, dénbera kontán lúrra baitagó àni(t)z tzúku, pues... kóstta da, ánitz! (dénbera horretan, laburbilketarik ez izateaz gainera, asimilazioa antzematen da, <i>e-ren</i> aldekoa gainera –azentuak erakarria ote?–, tzúku hori, bestalde, gazt. ‘seco/a’ dela)</p> <p>GM: ta, gýaygorík eré, ézta: aràn zomáit, xàgarrá, mìnбриlloá... ta geró, úrrutxak ere bái, úrrak...</p> <p>SN: eztá bátre békaturík egitén bakàzionéan...</p> <p>SN: èder déa?</p> <p>GM: ez diá kalák (sic) edo zér?</p> <p>SN: éztia kalá edo zé(r)? / ezteá?</p> <p>GM: eta orái yá, báda... karretíla, bidéa ónik, ta órai kótxean</p> <p>GM: arbólea... kór e sagár badá, ságarra</p> <p>GM: ez báda buélta emáten fite!...</p> <p>GM: xoxuá, baitá... abé⁹ béltx bát</p>

⁹ ‘Hegazti’, alegia. Jose Mari Satrustegiren *Euskal testu zaharrak* bilduma-lanean ageri den testu bateko hasieran ere –Zaraitzu (1780)– erdal mailegu hau aurkitzen dugu: *Avebati ebaquicen bazaizco egalac ecusten dizugu eztaitaquel a bola ceren faltabaizayo gauzaric principalenac bolaceco* (161 or.).

- GM: berzé gixán, ebiltzen dén lekutik eéz, e? aldápa...
- GM: ...ez bëitakít, nòla dén edo zèr dén, pues éztokét erran, déus e
- GM: eta geró, béti bërarekín míraz, abér sòrtzen dén, bitxoá
- SN: ta ník uste dén ipárra
- GM: ene anaiaren mútilak erran du naúzia fan dela
(*Eael-I*, 274, arg. gabea)
- 1-08 GM: éz-ez-ez-ez... ez dük igual!
(senar aetzari zuzendu zitzatzen oraingoan Gregoria, toketan)
- 1-09 GM: bai, baëa géro rebájatu dún, fíte
SN: irúte'men dún obéki... ikúzi bagé ília
(‘bage’ eta ‘gabe’, bi aldaerak erabiltzen zitzatzen Gregoriak zein Sinforianak)
- GM: gizón bát, kantante bát, eztún elkítzen... bàizik béré trá-jearekín ta txakétarekín
- 1-10 a GM: bizi zuá? / erori zuá?
(bitxi da galdera hauetan -a galdeztalea adizki alokutiboari erantsita ikustea, ekialdeko mintzamoldeetan, ohiki, gertatzen ez dena)
- 1-10 b GM: fan txu / igan txu
(*Eael-I*, 25 eta 29, arg. gabeak)
- 1-11 GM: úrtian, egún bat, guk, prózesioa; fáten girá ta...
(*gira* moduko era laburbildu gabekoren bat adi daiteke inoiz edo behin, bakan bada ere)
- GM: gu? (...) ónetarik gra
- SN: anímale bát bezála, eblí gra... mendían
- 1-12 GM: ez gitúk élkiren amar egun beñó len
(*Eael-I*, 253, arg. gabea)
- 1-15 GM: elkiren zadiá bíar kéndik?
(*Eael-I*, 255, arg. gabea)
- 1-16 GM: kebén, xuntáuten drá bí... ariák
SN: gúziak izan drá ándi / pízu, pízu... dra; kainbát úrte kòrpuz batian...?
GM: éne mûrkillara, e? pollítagokuák bádra
- GM: órai ez, eztrá ebiltzen pasiú!
- SN: orái e... eztrá kála bízi... apézak ere
- SN: ¿los vecinos?... gáur txinen dría?
(*gáur*, gazt. ‘esta noche’, alegría)
- SN: ník éz dakinát, uskáraz, nóla dren
- GM: gáur bai; gáur ellégatzen dréla
- 1-20 GM: fan nintzán ez baitzagón déus xátekorik
(*Eael-I*, 277, arg. gabea)
- SN: ni... karríkako atarián, eséri nintzán, zángöak... igùzkiará
- SN: eníntzan zúri sino... óri, rubia
- GM: ni? ez bénitzan juáten
(ikus honen hurrengo esaldiari egiten diogun oharra, ‘fan/joan’ de-la eta)
- GM: ta... géro, pues hála! andítuz fáten nintzala bezála...
(‘nintzana’ itxaron zitekeen, agian; *nintzala* aditzen da, ordea, aski garbi gainera)

- GM: eta kláro, éni, kála níntzalarik, [aitak:] “hála, ené áurra, guázen beién kuidáztra, hála!”
 (gure egunotara, Zaraitzun, *fan* adizkia ia erabateko nagusitasunaz iritsi baldin bada ere, *guazen* horrek ‘joan’ baten alde egiten du argiro. Izan ere, honen aurreko lanetan aditzera eman bezala, ‘joan’ hau ibarraren iparraldeko herriean inoiz edo behin agertzeaz gainera, ibarreko hego-mendebaldeko herriean ere aski zabaldurik zegoela ohartu ahal izan gara, eskuartean izan ditugun testuen araberako¹⁰⁾)
- 1-22 GM: ní eníntzanan orítzen kóntaz
 1-25 SN: ugàldiála fàte itzán?
 GM: ah, bueno, Irátin; kláro, fuáten báiyitzán beiékin ta...
 1-26 GM: ònen sénarrá zén almadiéro, e? / Doméñoko edo nónigo zen?
 SM: kaán zén àlmadién plázara
 SN: orái bi urté izan (t)zén Zangotzán fèsta bat
 SN: matrimónio izæn tzén, nik usté, elgítzen zéla plázala
 (Zaraitzuko ohiko era, Zuberoan bezala, ‘elki’ bada ere –gazt. ‘salir’ eta ‘sacar’–, kasu honetan *elgi* ahoskatu zuen Sínforianak)
 SN: kúra... estóparendáko tzén, kúra; róka
 (ikusgarria, Sínforianak eman azken lau esaldi hauek erkatuz gero, sandhiak gauzatzeko ustez egoera egokian diren aurreneko hiruretan ongi zehaztu gabeko jokaerak ikusi ostean, ustez horretarako arrazoirik ez dagoen laugarrenean ere *z* txistukaria afrikaturik aurkitzea)
 GM: báí-bai-bai... koléröa, koléröa déitzen zé
 (herri honetan bildu iraganaldiko adizkietan ere, nekez bada ere, *-n* galdurik adizkiren bat ageri zaigu; *kolero* hitzari dagokionez, bestalde, almadien azken tramoko arraunari eusten zion gizona izendatzeko ‘codero’ aditu dugu inoiz Erronkariko ibarrean)
 SN: galdíñ dazú (...) abér, éne senarrá izán zen almadiéro edo ezén izan almadiéro
 (‘ala’ juntagailu hautakaria ez bide da ohikoa zaraitzueraz Bonapartek eta Azkuek adibideren bat bildu baldin bazuten ere, Aitor Aranaren hiztegian dakusagunez¹¹⁾)
 SN: eta aprobetxá lemezíko úr... èltzen zén aparénte
 GM: éne denbrétan eré bázen kóri
 SN: ta zér ónik zen!
 GM: izan bazen mútil ona, egínen zuen súa
 (EAEL-I, 273, arg. gabea)
 SN: badín bazen zúra, lódi, e? bída, eta gíbléan bát, rémo
 SN: ah! xitén báizen kóna
 GM: éne ait(t)ák, éne aita zénak
 GM: éne áita zènarekin tá...
 GM: sobrátzen zénian éznia...
 (EAEL-IIan argitaratua, 271 zk.ko etnotestua)

¹⁰ Gregoria honexek, gainera, beste uneren batzuetan, *fuáten* eta *juáten* gisako aldaerak erabili zi-tuen.

¹¹ Erronkariko ibarrean, ordea, *abér nóla... bizi nindén ni órtzik bagè... ala e(z)nién xátan*, alde batetik, eta *zér bar da egín? ala órai eztá xoaitán?* bestetik, bildu genion aspaldi Izabako Antonia Anauti (FLV, 25), Uztarrozeko Fidela Bernati ere bai honako esaldia hartu geniola: *eztakiár, [emakumeak] zrénez bordáltru(k) ala zrénez neskáto* (EAEL-II, 292. zk.ko etnotestua).

- GM: etzéna... nola? bérze... bálle kóntako, Baztán áldeko
edo...?
- GM: izánen zéla úra, Mikeléiz
- SN: ta zük eztáki-... eztákizu baétz? eztákizua baétz? izan zé-
la?
(zuka erabili zuen oraingoan Sinforianak, aspaldiko gertaera bat
Gregoriari kontatzen ari zitzaiola)
- SN: éne senárra bàño lén, il tzelá?
- GM: ník ogèita bórz urte eré, nituén, áita il zelarík
- 1-28 GM: mittíka bát mogítu yuén ugàldëá, baiá...
GM: bai...! apál kítako errí... íl yue, bat, itó yuen
(bigarren esaldi honetan Gregoriak adizkia *n-z* gabeturik eman
zuen aurrenik, baina hau ez bide zaio, nahitaez, aezkeraren eragi-
nari zor –senarra hangoa baitzuen–, Aezkoako era, kasu honetara-
ko, ‘zuna’ baita. Aditz laguntzaileak erakusten duen *yue(n)* hone-
tako *y-* protetikoari dagokionez, bestalde, kontsonante likido batí
itsatsirik dugu kasu batean eta bokal batí bestean¹²⁾)
- 1-30 GM: géro, deskúidatzen begien àatzián¹³ (...), beién atzeán ta,
a lo mejor altzíntzen gintzán... xotzéko, ta! ta!
GM: ebiltzen astén gintzanéan, fáten gintzán pálo batekín...
beiékin
- 1-32 SN: amaláur... amabórz, góntzanan; báia Muskíldan... améka
- 1-35 GM: zér... pásu értsia! pues kándik igaretzén zren
SN: bí anaéak xíten zréni kéngo, Ezkározéko párrokoarengána
GM: lo egín?... baia beártzen zréni lekuán...
SN: zér errítakoak zren
GM: len, léen... büluetarík artúta elkítzen bazrén maestro ta...
GM: géro... makína batzúk ere bai èlki zín
SN: pues... jínen tziéla...
(jínen baino areago ‘finen’ aditzen da, agian, gure iduriko)

Aditz laguntzaile iragangaitza (*nor-nori*)

2-01 → 2-20, orainaldiko singularra; 2-21 → 2-40, iraganaldiko singularra
2-41 → 2-60, orainaldiko plurala; 2-61 → 2-80, iraganaldiko plurala

adizki-zk.

- 2-01 GM: nola déitzen drá? atzé zaidá
SN: pues etzáida... etzáida berríz inféktatren bëarría, pelén-
denge érmanaz
- 2-05 a SN: zér idúri zaizú léku kuek?
(zuketan zuzendu zitzagun aldi honetan Sinforiana, aditza singu-
larrean erabiliz, baina)
- 2-08 SN: emáten... zaió... buélta eman zalá ta...

adibideak

¹²⁾ Oroit gure ‘(2 - Eaurta: jarraipena)’ lanean, orri-oineko 69. oharrean, honi buruz egin genuen
iruzkina.

¹³⁾ Saio honetako lerroetan *a* luzeren bat aurkituko dugu behin baino gehiagotan. Oroitarazi be-
harrean gara Koldo Kanbra otsagiarrak José Estornési bidali gutun batean zioena: *Zoilok erraten du zo-
mait aldiz erraten dela 'a' bat luze* (José Estornés Lasa: *Zoiloren uzta...*). Ezkarozeko euskarari eskaini
saio honetan, baina, ez da bokal hori soilik behin edo behin luzaturik aurkituko duguna.

- GM: ta súan, egiten tzió... atxála; axála
 (EAEL-IIan argitaratua, 271 zk.ko etnotestua; ‘zio’ gisako era Otsagin ere bildurik gaude, emaile izan genuen Josefa Zoko andereak hau baino hedatuagoko ‘zaio’ adizkia orobat eman zuela)
- 2-18 SN: pues... orái, beár zaék ikusí...
 (Gregoriaren senarrari hiketan mintzatu zitzaison Sinforiana ere)
- 2-21 SN: oái ézta lánik gábe... [kontatzeko?] zér agítu zaidán!
- 2-28 SN: amás? étzion okúrritzen xardókitzéa éle bat; ník uskaráz ta... arék erdáraz
- 2-30 SN: oáño ebíltzen zionán baëa...
- 2-50 GM: geró órrek entxúfatzen dín ta égiak, parátzen zaizkón

3) Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nork*)

3-01 → 3-40: *nor*, singul. 3. persona; 3-41 → 3-80: *nor*, plur. 3. persona

adizki-zk.

adibideak

- 3-01 GM: ník e... orái bar dút beté... irurògéta... amaláur? lemezíko áben-, (zuzenduz:) bigárren ábenduan, azkénian / izotzilá, otsállá, màrtsöá, àprilá, màyatza, garàgarzaroá... garilla, agúztua, úrria, azáröa, lémezíko àbendua, bigárren ábendua.
- GM: kórtako, bai, ník konpréndittu dút!
 (t bustia, zenbait xumegarriren kasuetan izan ezik zaritzueraz bakan aditzen dena, Ezkaroze honetan, Orontzen eta Espartzan aditu dugu inoiz, ‘egitten’ hitzean bereziki)
- SN: órai lúto bérri-berría dút eta, anáe baténdakò
- GM: géro... badút bérze katxárro bat
- GM: ah! kében? nik... ník eztút izáuten, e?
- SN: ník éztut izán bátre txíkinik, gúziak izan drá... ándi!
- GM: ah! Rongárin éz, ník ez bétut aítu sékula uskára, mirá!
- GM: nik xardoki tan gizona...
 (EAEL-I, 268, arg. gabea; *tan* hori ‘dutan/dudan’ da, adizkiaren aurreneko silaba janik)
- SN: lo menos... ogéita amárr úrte... ez tála erématen peléndengerik
 (ez *tála* hori, arestian aipatu arrazoiagatik, ‘ez dudala / ez dutala’ dugu, Eaurtari buruzko lana prestatzean esan genuen moduan)
- 3-03 GM: nik xá galdu nat ta...
 (belarritakoez ari zenez, ‘tinat’ itxaron zitekeen, aditza pluralean, alegia)
- SN: bueno, bar nát eséri ken
 (Ezkaroze honetan ere ‘bear/biar/bar’ aldaerak, alde batetik, eta ‘kemen/keben’tik dugun *ken* laburbilketa, bestetik, ibarreko hainbat herritan bezala, ohiko gauzatzat jo daitezke)
- GM: báia ez nát ilérik ere; íle banát baia garbítu gabé ta déus e
- GM: fan dén urtian énat irún... déus e
- 3-04 b SN: enténditzen txút... oh! zér nái duen erran, élerran
- 3-05 a GM: xótzen duzu
 (EAEL-I, 55, arg. gabea)
- GM: txopáre kori, ikùsi dúzu?
 (erdi *dúzu* erdi *dízu* ahoskatu zuen aldi honetan Gregoriak)
- GM: bueno, ikúste’zú idéa báten...

- SN: kéndik góra, zubía, ikúsi zu
 GM: zúk aitzùrtzen... zuá?
- 3-05 b GM: aitzúrtzen xu / xeátzen xu / xuk eskribitzen txu
 (EAEL-II, 478, 482 eta 341, arg. gabeak. Gregoriak eman hiru adibide hauetatiko batean, soilik, gauzatzen da *n + x = ntx* sandhia)
- SN: pues... rézibitren txú regálöa
 GM: nai dúxua puru bát?
 (aldi honetan Gregoriak adizkia osorik erabili zuen, honen ondoren gozo adibidean ez bezala)
- GM: naí xua kafé... pixká bat?
 SN: “zér txu? préstatu txuá aldamorzoá?” eta “etxáuna”
 (txu horren leherkari gorra logikoagoa ikusten da *txua*-rena baino, egoera honetan ‘xua’ itxaron behar bailitzateke, antza; *etxáuna* horri, bestalde, ‘ez + xauna’ da, aise antzeman daitekeenez, nahiz datuak bildurik dauden XX. mendearren bukaera aldean ‘jauna’ izan ohiko hitza)
- 3-06 GM: zéndako il duk súa?
 (EAEL-I, 261, arg. gabea)
- 3-07 GM: zér dun? zér prísia! zér... bér dun egin?
 SN: nón ikúzten dun íle ori?
 GM: bána zerbá? badúna? bien entendido, mejor
 (bigarren adibidea aurrenkoak argitzeko, hots, ‘bana’ hori ‘badúna’ren laburbilketa dela adierazteko eman zuen Gregoriak)
- SN: ah, or ná?
 SN: zérba baná? / bána zerbá? barátzéan...?
 GM: ená ikustén áartzen dagolá? katxárro korrék?
 (magnetofoiagatik esan zuen hori Gregoriak, zeinak, bestalde, adizki laburtuak erabili baitzituen, Sinforianak bezala; *a* luze bat ahoskatu zuen, gainera, Gregoriak)
- 3-08 SN: ená bátre ilérik?
 GM: ez dú mirátu galería kartárik? zér... pásu értsia!
 (Gregoria guri, hasieran, ‘dukek’ez mintzatu zitzagun, Eaurtako Carmelo Krutxagak esan ohi zuen bezala; *galería*, berriz, ‘baloi luze bat’ da, hori esatean Gregoriak Arbaiun gaineko behatokia buruan zuela)
- SN: faltá dú... irúr egun, illabeteáren egítelko
 SN: yá-ya, más vale maña que fuerza; yagóa (sic) bálio du mañák, ideák, èzik indár gúziek, ezteá?
 GM: dénbra du ezétz; lén bai baia órai ez
 SN: ník gizóna, badú ogéita bórz urté... lúrpeán dagola
 SN: ¡madre, este señor! nóla badú kéinbat paziéntzia? ¡madre...!
 GM: eztú izán úmerik
 SN: eta oán eztú ilábétæa; faltá dú... irúr egun, illabeteáren egítelko
 (bakan da *oán* hori, ‘orai’ baita, ia salbuespenik gabe, ibar honetako era; esaldi honetan, gainera, *ilabete* / *illabete* bikotea dugu, *i-* baten ondoko *l-a* bustitzeko joera zalantzagarria erakutsiz, inoiz esan dugun moduan)
- SN: eta geró? pentsátsen duén egúnéan bérze gauza bát...
 (esaldi hau, sintaxia dela-eta, bitxi samarra iruditzen zaigu)
- SN: enténditzen txút... oh! zér nái duen erran, élerran

- GM: abér! telébisionean bér, nón dun... zér yágo
 SN: orái artió, aitzúrrarekin, áitzurrarekin, ta orái... pues... mándö batékin edo... zámari batékin edo en fín, bako-txák... duénarékin
 SN: Jangóikök nài duéniala ártio bizí izan
 SN: nork, nai duéla egín?
 3-10 GM: e? zér típo inen dín ónek?
 (noka erabili zuen Gregoriak oraingoan, galdera izan arren)
 SN: klaro! pues lúrrak! dénbra berák, tzùpatzen dín...!
 GM: béti baadín bentája mútxika bat, kánbio píxka bat
 (*baadin* horretan *a* luze bat aditu uste dugu, eta *mutxika* hitzari dagokionez, bera baino maizago ‘mittika’ aditzen da Zaraitzun)
 SN: eta ník badín, lo menos... ogéita amárr úrte...
 SN: eeéztin xárdokitzen ya éz
 3-12 GM: baia gúk irúten... dugú pues, ílea!
 SN: zér egín bar dugu? Jangóikök nài duéniala ártio bizí izan, eta geró? pentsátzen duén egúnian bérze gauza bát, *jhala!* patáka estíra ta *jhala*, adiós, que te vaya bien! (barrez)
 (‘patara’ –gazt. ‘la pata’ – esan nahi izan zuen Sinforianak, jakina, guk horretaz ohartarazi eta hark onartu zuenez)
 SN: bádugu áski, bai
 GM: kén bátre, eztúgu izáun
 SN: kében ez, eztúgu dántzarirík
 SN: kainbát úrte eztúgula bátre praktikázen pues...
 GM: èz bitugú ezertáko balío
 3-14 GM: askáldren nagún, geró
 3-16 GM: iltzen duzie / il duzie
 (*EAEL-I*, 56, arg. gabea)
 SN: sáldu tziá... iléa? / etziá áski [festa] Sán Sebastiáneköá?
 (lehenengo adibidean iduri luke ‘zia’ era laburtua aski litzatekeela, izena singularrean egonik)
 GM: parti zazié egúrra erau tziéna
 (*EAEL-I*, 267, arg. gabea; *erau* hori ‘eragu’ da hor –gazt. ‘traer’, alegia–, eta *tziéna* moduko aditz laburtureko kasuan berriz, arrestian ikusi adibide batean bezala, era hau egokiagoa iruditzen zaigu pluralerako singularrerako baino)
 3-17 GM: kóri inférnua dié!
 GM: zómait... àbe txíkin, eta... il báitie, tórdua bezála
 (aldi hotanet ‘tordo’ hitz mailegatua erabili arren, 1-07 zk.ko adibide batean *xoxuá* erabili zuen Gregoriak)
 GM: xárdokitzen diéla zérbait, e? zérbait!
 SN: xárdokitzen dielá uskárara
 GM: tortilla... ermáten duté, tortilla ta...
 (hona Ezkarozentzere *dute* adizkia¹⁴, Eaurtan eta, doi-doi izanik ere, Otsagin, Orontzen eta Espartzan orobat bildua)
 GM: kóri, zertáko konséntitzén te?

¹⁴ Ana María Echaidek prestatu *Iruzkizundi Irukoitza* izenburuko lanean ere ‘dute’ ageri da Ezkarozentzere.

- (te laburtu hau, herri honetaz gainera, Eaurtan eta Espartzan ere aditu dugu gutxienez)
- 3-19 GM: gúk beño yagó ikàsi díne!
 SN: péko... érrí koitákuek, irùten diné ikúzi bagé... ília
 GM: zemáitek eztíne aítu nai kóri, e?
 3-20 b SN: zertáko eutzí ditzié sóstra?
 (adizki alokutiboa dugu adibide honetan ere, galdera izan arren)
- 3-21 GM: gaztá? ere bái egín nuen zérbait
 SN: péko kàrrikatik ikusi nuén paréja bat
 GM: ník banuén trénza bat...
 SN: ùrte áníz bádu yá kóntu, kóntua gáldu nuéna
 GM: kláro, nik xúa egíten nuenéko, bórdan...
 ('sua' dugu *xúa* hori, jakina; inoiz esan uste izan dugunez, gure materialetan maiz aurkitzen dugu 's' bustiren bat, 'x' bihurturik edo erdizka bihurturik)
- 3-23 SN: baizákien érrian, banuéla trénza kúra...
 GM: enuéla aitú sékula Errongáriko...[uskarara]
 GM: ah! ikusi ninán, amú batekín (...) eta e... enínan kàsorik égin
- 3-26/27 SN: pues ígare nínan infékziona bat terrible...
 SN: ikusi yuéna niík (...), e'yúyena ikusí?
- 3-28 GM: akáso... irútra fatéko, zuénprixára!
 SN: gáxol! badákin, zér bízi... ermáten tzuen
 GM: eta, nik pues, ùste ninán... Juliának ere útzi zuén
 GM: bázuen altzíñetik írur edo...
 SN: ez! kasórik etzuén izan, desgráziarik
 SN: alfórjará... eta espálderöá, ezpázuen eúria egittén, roperoan
 SN: fán biar tzuéla, norá?
 SN: pues... estómaka-min... bazuéla ta gurékin: aámmmm!
 ('estópaka-min' aditzen da gure ustez, aski garbi gainera)
- 3-30 GM: ta... gámintak etzuéla ebákitzen txulára...
 GM: galdein zinan... Mikeléiz, ta... / Bitória zenák egiten zinán
 ('litekeena da bigarren esaldiko *zinan* hori 'ziñan' izatea)
- 3-32 SN: ta a(t)zénian, bil... érden zinán... Mikeléiz
 GM: guk zér ginuen? béisak! altzínian
 GM: pues kán, müxker bat; ez béisiginuen... beldurrik, piká-tren zuéla, súgia bezála... müxkerra
 ('ez baiginuen' ere orobat erabili zuen Gregoriak, beste uneren batean)
- 3-34 SN: don... Plácido Asirón ginuénian... zer, dotóre
 GM: éne... aízpa batekín, xárdokitzen gininán ánitz
 GM: eta... musikán? gótti xardòkitzen gininán uskáraz, e?
 GM: eráunian? konbértsazioa edóki ginína(n) Felíperekín
 ('eráunian' hori 'ora(g)unian'en aldaera izan liteke agian)
- 3-37 GM: xaz, féstetán dántzatu zién, kémen / berzáñez, nola bar zién resístitu?
 SN: izán zien àlke gúzia eskátzeko

- SN: kàsi béti, Zangótzan deskántsatzen zín gáu batez
(‘zien’en aldaera dirudi *zín* horrek, Otsagin ere bildu duguna, bes-talde)
- GM: kén étzin galtzén, ezta’re... urdáki pixká bat; urdáki pix-ka bát es el tocino
(honen aurreko esaldian aipatu ‘zin’ bera dugu honetan ere, ezez-ko kasuan baina)
- GM: eztákit nólá bar zién resístitu! otzá ta... úda ta...
- SN: eta béin edo... bi áldiz, almádiatu ziénak, e? kaék onóre guziák
(*beiñ edo* izan daiteke, agian)
- GM: ník íkusi nínan, bai, ámu’át ek kárri utzí zielá, amuá ta...
(esaldi honetan duguna, geure ustez, gazzt. ‘ellos a aquél’ izatean, ‘zabela’ itxaron behar zela iruditzen zaigu, komunzadura behar bezala gordeko baldin bazen behintzat)
- 3-39 GM: ta ermán zienán Donlúixeniála; Donlúixenetik érman zienán Espárzeniala
(herriko etxe-izenak dira *Don Luis* eta *Esparr*)
- 3-41 SN: eta ené senarrá etziénan elkí... déustako ere
GM: ikusi tut sei gízon bídian
(*EAEL-I*, 240, arg. gabea)
- 3-43 SN: pues ník... bí íle batinát eta eztákinat...
- 3-44 a SN: ník zúriak eta zúk éniak, por ejemplo eré... enténditzen txút
- 3-48 SN: ta kótxe aándi baték ermàten tú zági... bí zági árdo ta... ógi
GM: pues guziák drá yá antiguo, ez báitu iyórk ere egín nai ya
- 3-50 GM: mutíko gaztenák bátin yá... zerbítzua... kunplítrik-eta, daukín! ogèita séi ur(s)té...
- 3-56 GM: zomat ídi tzíe errian?
(*EAEL-I*, 262, arg. gabea)
- 3-57 SN: gaztëák... oblígatzen tié [berzek]
GM: eztue érman gamíntak
(*EAEL-I*, 251, arg. gabea; aditz laguntzailea *tie* eta *tute*, bien arte-an geratu zen, antza)
- 3-61 GM: ník ogèita bórz urte eré, nituén, áita il zelarík
- 3-70 GM: errí kóitako... bát edo bída; kontàtu ztinán? írur lo me-nos itórik
(hikako adizkia erabili zuen esaldi honetan Gregoriak, galdera iza-nik ere)
- 3-77 SN: kaék onóre guziák, ermán ztiéla
- 4) Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nork*)
- 4-01 → 4-24: *nor*, singul. 1. pertsona; 4-25 → 4-48: *nor*, plur. 1. pertsona
adizki-zk. adibideak
- 4-40 GM: ordúan etzén... eskólarik... párbulorík eta dèus eré, bái-zik ere... [maestroak] amétilten gintzánëan, hála!

5) Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nork*)

5-01 → 5-24: *nor*, singul. 2. pertsona; 5-25 → 5-32: *nor*, plur. 2. pertsona

adizki-zk.adibideak

5-05/06 GM: nok akonpáñatu yu?

(eskuz harturiko galdera; beldur gara, haatik, *nok* hori ez ote ‘nork’ izango, geure akats bat tartean dela)

6) Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nori-nork*)

6-01 → 6-24: *nor*, singularreko 3. pertsona; *nori*, singularreko 1. pertsona

6-25 → 6-48: *nor*, pluraleko 3. pertsona; *nori*, singularreko 1. pertsona

adizki-zk.adibideak

6-03 GM: emán bar dadan; bána (= baduna) zerbá?

6-04 GM: pues buena pena emán dadá eni

6-16 GM: xin zelarík eskátu zadán úra
(*EAEL-I*, 269, arg. gabea)

SN: ítz emanéz, e? itzúlien zadála

6-18 SN: esíjitu tzadanán, don Águstínek...!

(‘zadanan’ aski litzateke, antza –‘ziadanan’ hobeki legokeen arren-, bokal baten ondotik adizkiaren hasieran ageri den leherkaria arra- zoitu dezakeen ziorik ez baita ikusten)

6-21 SN: pues míra, emán (t)zàdaená, bandéja bat

6-23 SN: eta... xaz, úrrian, ení... mirátu zadaénan água... Zan-gó(t)zan
(‘ahoa’ da *água* hori, aise ondoriozta daitekeenez)

7) Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nori-nork*)

7-01 → 7-24: *nor*, singularreko 3. pertsona; *nori*, pluraleko 1. pertsona

7-25 → 7-48: *nor*, pluraleko 3. pertsona; *nori*, pluraleko 1. pertsona

adizki-zk.adibideak

7-04 GM: gáxöal góuri, zér bar daukí egín?

7-16 GM: xótzen zaukién, ánitz! [maestroak]

7-21 SN: jínen tziéla ... Muskíldan (...) [fotografia] èlki zaukié-nekin

8) Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nori-nork*)

8-01 → 8-24: *nor*, singularreko 3. pertsona; *nori*, singulalerreko 2. pertsona

8-25 → 8-48: *nor*, pluraleko 3. pertsona; *nori*, singularreko 2. pertsona

adizki-zk.adibideak

8-13 GM: aah! bái-bai... ník erran náuzu: dozn’érdi bát?

(zuka erabili zuen oraingoan Gregoriak, adizkiaren azken *n-a* ahoskatu ez zuela)

8-24 GM: bàia elkí zabenán beré fotógrafiarià

(‘haiet hiri’ honetarako Eaurtan *zaunen* bildu genuen, eta Espanzan *zauyanen*)

9) Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nori-nork*)

9-01 → 9-08: *nor*, singularreko 3. pertsona; *nori*, pluraleko 2. pertsona

9-09 → 9-16: *nor*, pluraleko 3. pertsona; *nori*, pluraleko 2. pertsona

adizki-zk.

adibideak

9-08 GM: bueno, ení ez, zúerr èlki zauzién, zúerr èlki zauzién [fotografiara]

10) Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nori-nork*)

10-01 → 10-40: *nor*, singularreko 3. pertsona; *nori*, singularreko 3. pertsona

10-41 → 10-80: *nor*, pluraleko 3. pertsona; *nori*, singularreko 3. pertsona

adizki-zk.

adibideak

10-03 SN: tomá! pues... lióbarí egíten dakonót
(asimilazioa egon liteke hor agian, ‘dakonat’ baizik ez baitzitekeen igurika era honetako adizkien muinean berezko *-i-* ezaugarria tarteatzen ez zuten informatzaile hauengandik, berez *diakonat* beharko bazuen ere¹⁵⁾)

10-08 GM: tíbia emán dakó
(*EAEL-II*, 329, arg. gabea)

10-21 SN: ník erráten nakón nekatíllari (sic)

10-23 GM: pues ník errán nakonán: kebén? dozn’érdi bát?
SN: portázo bat emán nakonán...!

10-28 SN: emáztiak (...) erráten tzakón... gizònari etxákin zer
(*etxákin* hori ‘ez xakin’ da, errazki antzeman daitekeenez)

10-32 GM: ta... uh! beldúr bat... ginakón!..

10-37 GM: nik... bádakinát norí... nórí emán záakoén, fotógrafíara

10-61 GM: errán nazkón átzo, enuéla aitú sékula Errongáriko...
[uskarara]

11) Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nori-nork*)

11-01 → 11-40: *nor*, singularreko 3. pertsona; *nori*, pluraleko 3. pertsona

11-41 → 11-80: *nor*, pluraleko 3. pertsona; *nori*, pluraleko 3. pertsona

adizki-zk.

adibideak

11-03 GM: bai, oáiñ eztabenát gendú baiá, géndren dabénat

11-21 SN: errán naben: almádiero lëjítimoak, e?

11-23 SN: ta errán nabenan: muchas gracias

11-37 GM: áu ere, oménaje ein báizaben, de ancianos, ené sénarrarí ta... óni

¹⁵ Balizko asimilazioez ari garela, duela urte batzuk, Pedro de Yrizarrentzat aditzari buruzko inkestak egiten aritu ginenean, eta *xuketan* izanbazen ere, ustez halakoxeak erakusten duten ‘dakoxot’ eta ‘diakoxöt’ gisako erak bildu genituen Garazi aldeko Gamarte herrian, eta ‘diakoxot’ ondoko Lakanran (Pedro de Yrizar: *Morfología...*, 190 or.).

ALOKUTIBOTASUNA DELA ETA

Zaraitzuerazko zenbait adizki alokutibotan tartekaturik aurkitu ohi den -*i*- ezaugarria dela-eta, Ezkarozenten bildu datuek haren erabateko galera agerian ezarri besterik ez dute egiten, gehien gorde dituzten herriak Eaurta eta Espartza izan direla. Hots, Eaurtan, XIX. mendean, ‘nor-nori’ saileko 2-18 zk.ko kasurako –hura haiei’ (toka), kasu-, *ziayek* adizkia bildu bazeen ere, XX. mendearen bukaera aldian *ziaek* eta *zaek*, biak bildu ditugu –Espartzan bezalaxe, bestalde¹⁶–, Ezkaroze honetan *zaek* besterik aditu ez dugula, nahiz honek ez duen esan nahi bestelako aldaerarik ez dagokeenik.

‘Nor-nori-nork’ saileko 6-18 zk.ko kasurako, berriz –‘hark niri hora’ (noka)–, *ziadianan* dugu Eaurtan XIX. zein XX. mendeetan, eta baita Espartzan XX. mendearen bukaera aldean ere¹⁷; Ezkarozenten, aldiz, *zadanan*. Eta joera berria dugu 6-23 zk.ko kasuan –‘haien niri hora’ (noka)–, *ziadayenan* baitugu Eaurtan XX. mendean eta *ziadaenan* XX –Espartzan ere azken hau bildurik gaude azken urte hauetan–, baina *zadaenan* Ezkarozenten.

Azkenik, eta ditugun adibide guztiak hona ekarriko ez baditugu ere, 11-03 zk.ko kasurako –‘nik haiei hora’ (noka)– *diabenat* dugu Eaurtan XIX. eta XX. mendeetan eta gauza bera Espartzan XX.ean ere –Ezkarozenten *dabenat*¹⁸–, eta 11-23 zk.korako –‘nik haiei hora’ (noka), orobat, baina iraganaldian–, *nianbenan* Eaurtan eta Espartzan, Ezkarozenten *nabenan* dugun bitartean. Otsagiri dagokionez, 11-04-b zk.ko adibide batean *eztabexut* dugu eta 11-31-b zk.ko beste batean *zabexun*, biak balizko -*i*-aren inolako tartekapenik gabe.

Ezkarozenten nabaritu uste dugun galera hau adizki trinkoetara hedatzen da halaber; hots, 1-16 zk.ko adibide batean *dakinat* bat ikus dezakegu, eta 3-43 zk.ko beste batean *eztakinat*, aipatu tartekapenaren ezein arrastorik gabe.

MINTZAMOLDE HONETATIK HARTURIKO LAGIN BATZUK

Honainoko lerroetara ekarri ditugun esaldiak aurkeztu ondoren eta Ezkarozeko euskarari eskaini diogun saioari jarraipena emateko, 1976ko udan bi andere hauei egin ikustaldian bildu genituen materialetatik ateratako elkarritzeta xume batzuk emango ditugu jarraian.

Hauek aztertuz, sehaskan ikasi hizkuntza azken hamarkada luze samarren etorrian gutxitan mintzatzu izanak ezinbestean erakarri dien higitze, moteltze eta hainbat eratako herdoiltzeren zamak –zenbait zaldantzatan eta, nahi gabe bada ere, erdarara jotzeko lehia bizian agerian ezaurreak– agitz nabarmen geratzen direla iruditu zaigu. Gainera ezin liteke bestela izan, zaraitzuera jada, aspaldian datorkion gaitzaren ondorioz, azken hatsetan dagoela kontuan iza-nik.

¹⁶ Espartzako informatzaile Jacinto Ramírezek toka, noka eta xukako alokutibo hauetik -*i*- tartekaturik zein tartekatu gabe eman zituen. Xukako erak eman ondoren guk argitasun eske horretaz galdeztu eta, zera erantzun zuen: *de las dos formas se dice*.

¹⁷ Otsagin, ordea, xuketan –6-19-b zk.ko kasua, beraz–, *zadaxun* bildurik gaude, bitan gainera, *ziadaxun* bat ere gabe, honen aurreko saioetako batean –‘(4 - Otsagi: esaldiak)’ izenekoan– ikus daitzekeen bezala.

¹⁸ Otsagin, xuketan berriz ere –11-04-b zk.ko kasurako, beraz–, *dabexut* bildu genuen aspaldisko, balizko ‘diabexut’ baten barruko -*i*-aren ezeren arrastorik gabe.

Haatik, ez zaigu iruditzen, lekukotasun hauek ikusiz eta, beti ere, euska-ra mintzatuari gagozkiola, andreok hain gutxienekoen azpian zeudenik, gau-za izan baitziren aldian-aldian esaldi luze bezain aberats batzuk emateko –inoiz are gatz eta pipar pixka batekin ere–, zenbait unetan hizketarako hain-besteko erraztasuna erakustea gainera.

Andereok, oroitarazten dugu, Gregoria Mikeleiz (GM) eta Sinforiana Narbaiz (SN) izan ziren elkarritzeta guztietan zehar, 1976ko udako arratsalde batez eginak.

Argiloako edo Argiloaingo¹⁹ Ama Birjinaren erromeriaz zerbait

GM: Úrtian, egún bat, guk, prózesioa; faten girá ta...
- *eta nola faten da, edo...?*

GM: Orái artióoo... ebíliz, eta orái yá, báda... karretíla, bidéa ónik, ta órai kótxean; ni... áurten artió, fan níz ébiliz, ta... aurtén kótxean.
- *bai, karartio badira kilometro batzuk; eta aldapa... ‘aldapa’ erraten dea?*

GM: Aldapá baia... orái, karretíl aunitz; berzé gixán, ebiltzen dén lekutík eéz, e? aldápa...
- *txorrotx?*

GM: Txoótx? txótxotxa... ttxuttxúrröa²⁰, p’arríba....
- *fuerte’ errateko, nola?*

GM: Pues, pikárra, fuérte...

SN: Fáteko... kótxian beár du izán... úrte aníztetako persónara; gaztëák... oblígatzen tié, prozés-sioan [fatra?]...
- *eta prozesioa nondik faten da? kemendik? kurutze eta...*

SN: Bái-bai-bai... kurútzeak eta guzéák, guzéák, bai.
- *jende anitz faten dea?*

GM: Bai, astéria²¹, aurtén ánitz.

SN: Aurtén ánnnítz!...

- *eta nola faten da? lenik kurutzea eta bi monagillo edo? ‘monagillo’ edo ‘bereter’ edo nola erraten da?*

GM: Monágilloá!

SN: Eta Ayúntamentuá eta... en fin, kántatuz letaníak, e?
- *latinez?*

SN: Sí, sí...

¹⁹ Argiloa eta Argiloain, bietara aditzen da, aurrenekoa gehiago behar bada –motzagoa delako, agian?–; haatik, Bidankozken Argiloan aditu dugu.

²⁰ Trinidad Hualde ezkaroztarraren arabera “un altico pequeño”. Hitz hori idaztean erabili ditugun *tx* horien bidez aditzen uste dugun *tx* eta *tx*-ren arteko soinu bat irudikatu nahi izan dugu. Honelako soinua Erronkari ibarreko Izaban, *txun-ttxuna eta neskattxuak* moduko hitzetan, adibidez, eta Uztarrozen, *aminttxo eta kottxa* bezalakoetan, aditu genuen duela jada urte asko samar Antonia Anaut eta Fidela Bernat andere onen ahotik, hurrenez hurren, kanariarrek mintzatzean egin ohi duten gaztelerazk *ch*-aren ahoskapena oroitaraziz.

²¹ Azkue: Asteria: 1º (R), sarna, *gale*. (De ATS-ERIA). Eritasun hau sendatzeko joaten zen, non-bait, garai batean Argiloaingo baselizara, gure egunotan erromerian-edo joateko ohiturari eutsi bazaio ere. Aspaldiko denboretan lurralte hauetan izurrite bat gertatu zelarik sarztarrek haren kontrako basesa eskatu zutela-eta, herrian inor ez zela hil esan digu duela denbora gutxi izenik hartu ez diogun Sartze bereko andere batek.

- GM: Eta géro kán, méza entzún...
- SN: Buen sermón, sermón ederrra, ta askáriak onik érman ta...
 - *ah, askariak eramaten dira?*
- SN: Bai! ta kótxe aándi baték ermáten tú zági... bí zági árdo ta... ógi...
 - *askari edo bazkari?*
- GM: Ah...! bázkari kásik.
- SN: Pues bázkari. Aurtén...
 - *ah, romeria, romeria gisa...*
- GM: Bai, bai, romería; tortilla... ermáten duté, tortilla ta...
- SN: Sí, sí, sí, romería, pero... romería muy importante, e? sí. Aúrten báze-gón... San Sébastiáneko... bida (e)do írur familia ere, romerian, bai.
 - *dantzaririk izaten dea?*
- SN: Ez! kében ez, eztúgu dantzáririk...
- GM: Kal gúk ez...
 - *Otsagin bai...*
- GM: Otsáin bai; bida, la Virgén de Muskildá²² y... ta bérze bát...
- SN: Erríktoa.
- GM: Gàzteá... gázteák Muskıldakök ta... zárrak...
- SN: Erríkóak.
- GM: Xaz, féstetán dántzatu zién, kémen...
- SN: Ah! Otsáiköek!
- GM: Txíkinek, bai...
- SN: Ah, ya! tienes razón, bái-bai.

Almadien inguruko oroitzapenak

- *eta zer konta dokezie berze? zien... gazte-denbran? edo ‘gaztezutuan?’ edo... nola erraten da?*
- GM: Gúre, gúre... gúre gáztezutuán.
 - *ikusi duzie almadiarik saunsten?*
- GM: Almadíak? bái! ònen senarrá... ònen sénarra zén almadiéro, e?
 - *konta, konta zazie non egiten, non lotzen zitien...*
- SN: Lotú? goiti kortan; kendík...
- GM: Txopáre²³ kori, ikusi düzu?
 - *non, Otsagirako bidean?*
- GM: Ez! Ezkározerík... kórtik, beréala; txopáre bat.
- SN: Kéndik góra, zubía, ikusi zu; bueno pues... eskúialá, báitago ór, óri, txópare... gázte bát, kaán zén àlmadién plázara, ataderoa; ta kándik buruzkéindika²⁴, hálal!, ugaldialá, frankéz, egótz, bérrez kán at-, (zuzenduz:) lót! eta aprobetxá lemeziko úr... éltzen zén aparénte, aék báizakién negúrria, eta kóor, koór, kontrapuérto korí, présará, pues óngi kondizionátrik, por supuesto...
- GM: Gótitik saú(n)sten zréñ kan; ¡uyyyy..., hala!

²² ‘la Murjén de Muskildá’ aditzen dela iruditzen zaigu.

²³ Hitz mailegatu honi gagozkiola Trinidad Hualdeki ‘un chopar’ dela esaten badigu ere, guk, inguru hauetan eta gaztelaniaz, ‘una chopera’ aditu dugu beti.

²⁴ Azkue: *Buruzkaindika* (BN-s), caer dando tumbos: *dégringoler, tomber en roulant*.

- SN: ¡Pero mira cómo son las cosas! bueno, oráí bi urté izan (t)zén Zangotzán festa bat...
- GM: Bai, almádiero... festára.
- SN: Bai, eta ené senarrá etziénan elkí... déustako ere.
- GM: Buuuuh! (harriturik edo)
